



2021/05/04

# IKASTOLAKO BARNE BEKA PROGRAMA

2020/21 ikasturterako Ikastolako barne beka programarako eskabideak aurkezteko epea zabaldu dugu maiatzaren 16ra arte. Zailtasun ekonomikoen ondorioz hileroko ordainagiriak ezin ordaindurik dabiltzan familientzako barne laguntza programa da eta Ikastolako maila guztietara zuzendua dago.

## ELKARTASUN SISTEMA

Izan ere, programa honen bitartez, eta bazkide guztien ekarpenekin, kuota ezin ordaindurik aurkitzen diren familiekin elkartasun sistema bat osatu nahi da. Hortaz, banatzen den hornidura hau bazkide guztien ekarpenekin osatuko da eta eskaerak erantzukizunez bideratzea eskatzen zaie bazkide guztiei.

Laguntza hauetan parte hartu ahal iza-

teko, ezinbestekoa da Eusko Jaurlaritzako bekaduna izatea. Laguntzen gehienezko zenbatekoa, aurrekontuak ahalbidetuz gero, Jaurlaritzak emandako beka eta Ikastolako kuotaren zenbatekoaren arteko diferentziaren %50ekoa da.

Egoerak hala eskatuz gero, eskaera kopuru handia bilduz gero adibidez, baremazio zehatzagoa bideratzeko aukerak aztertuko dira.

## LARRIALDI EGOERAK

Osasun alertak eragindako larrialdi egoerak kontutan hartzeko ahalegina ere egingo da aurtengo deialdian. Horretarako, aparteko eskaerak aztertuko dira, kasu hauetan ahalik eta argibide gehien eranstea gomendatzen dugularik, errenta maila egiaztatzeoak zein bestelako egoerak argitzeoak.

beka  
eskatu

